

**ARIKETA OSAGARRIA. Euskaltzaindiaren arauak eta EH**

Eguna:

Izen-abizenak:

**1. Bete itzazu hutsuneak *batzuk* behar bezala deklinatuz.**

1. \_\_\_\_\_ (NOR) ondo bizi izateko, gainerakoek lan egin behar. **batzuk**
2. \_\_\_\_\_ (NORENTZAT) ez da erraza ikasitakoa gogoan hartzea. **batzuentzat**
3. \_\_\_\_\_ (NORK) trebetasun handia dute beste batzuek egindakoa hankaz gora botatzeko. **batzuek**
4. \_\_\_\_\_ (NOIZ) kosta egiten da akatsa atzematea. **batzuetan**
5. \_\_\_\_\_ (NOREN) ustez, ederra da negua; beste \_\_\_\_\_ (NORI) ez zaie batere gustatzen. **batzuen / batzuei**
6. Alde handia dago herri \_\_\_\_\_ (NONDIK) beste \_\_\_\_\_ (NORA). **batzuetatik / batzuetara**
7. \_\_\_\_\_ (NOIZ) zaila da zientzia-aldizkari \_\_\_\_\_ (NONGO) testuak ulertzea. **batzuetan / batzuetako**

**2. Idatz itzazu esango zenituzkeen bezala beheko datak***Adibidea:* 2014ko martxoaren 24a

- |               |                               |
|---------------|-------------------------------|
| 1. 1991-03-04 | <b>1991ko martxoaren 4a</b>   |
| 2. 2000-01-01 | <b>2000ko urtarrilaren 1a</b> |
| 3. 2013-11-11 | <b>2013ko azaroaren 11</b>    |
| 4. 2011-12-26 | <b>2011ko abenduaren 26a</b>  |
| 5. 1985-04-31 | <b>1985eko apirilaren 31n</b> |

**3. Egin itzazu egin beharreko zuzenketak beheko esaldietan**

1. Ez dut oso ondo ulertzen **bostgarren** artikulua dioena.  
Ez dut oso ondo ulertzen **bosgarren** artikulua dioena.
2. **Bapatean** hil omen zen gizagaixoa.  
Bat-batean hil omen zen gizagaixoa.
3. **Mila seirehun** ikaslek hartu zuten parte protestan.

Mila eta seiehun ikaslek hartu zuten parte protestan.

4. Ez du merezi horretan denbora asko **galtzeak**.  
Ez du merezi horretan denbora asko **galtzea**.
5. **Abenduak 11** izango da azterketa.  
**Abenduaren 11n izango da azterketa**.
6. Bost **urtetako** haurra dauka Olatzek.  
**Bost urteko haurra dauka Olatzek**.
7. Ez **diegu** lagun **guztiei** gonbidatu afaltzera, ez **bait ginateke** sartuko etxean.  
**Ez ditugu lagun guztiak gonbidatu afaltzera, ez baikinateke sartuko etxean**.
8. **Kutzazai** automatiko **batetan** aterako dugu dirua.  
**Kutzazain automatiko batean aterako dugu dirua**.
9. Ohitura **legean** bihurtu zen azkenean.  
**Ohitura lege bihurtu zen azkenean**.
10. Ez dute egin **planarik**.  
**Ez dute egin planik**.
11. **Zenbagarren** artikuluak dio hori?  
**Zenbatgarren artikuluak dio hori?**
12. Langabezia da **benetazko** arazoetako bat.  
**Langabezia da benetako arazoetako bat**.
13. Ez dira **eritzi** berekoak.  
**Ez dira iritzi berekoak**.
14. Esan digutena hala **ba da**, ba al duzu aitzakiarik ez joateko?  
**Esan digutena hala bada, ba al duzu aitzakiarik ez joateko?**
15. Ez **dituzte** aldatu planik.  
**Ez dute aldatu planik**.

#### 4. Berridatzi beheko esaldiak *bait-* baliatuz.

*Adibidea.* Zuzenen arteko paralelotasun-erlazioa simetrikoa da,  $r$  zuzen bat  $s$  zuzenaren paraleloa bada,  $s$  zuzena ere  $r$  zuzenaren paraleloa da eta.

Zuzenen arteko paralelotasun-erlazioa simetrikoa da,  $r$  zuzen bat  $s$  zuzenaren paraleloa bada,  $s$  zuzena ere  $r$  zuzenaren paraleloa baita.

1. Aldagaiak zenbait balio izan ditzakete, konstanteek ez bezala, horiek balio finkoa dute eta. **baitute**  
\_\_\_\_\_bai(t)-\_\_\_\_\_.

2. Orain dela hogeita hamar urte ez geneukan iragarpen hori egiaztatzeko modurik, ez ginen-eta gauza ADN kodea irakurtzeko. **baikinen**  
 \_\_\_\_\_ bai(t)-\_\_\_\_\_.
3. Orain sortu duten material berriak arazo hori gainditzen du, ura eta CO<sub>2</sub>a leku desberdinetan lotzen zaizkio eta. **baitzaizkio**  
 \_\_\_\_\_ bai(t)-\_\_\_\_\_.
4. Teknikaren aurrerapenak gizakiaren aukerak areagotzen ditu, baina aldizka eta pixkanaka-pixkanaka osasuna hondatu ere bai, alferkeriari atea zabaltzen dizkio eta. **baitizkio**  
 \_\_\_\_\_ bai(t)-\_\_\_\_\_.
5. Gai kilikagarria da, makinaren bidez gaixoek ohiko bizimodua dastatu eta gozatuko lukete eta. **bailukete**  
 \_\_\_\_\_ bai(t)-\_\_\_\_\_.
6. Gauean segurtasunik eza nagusitzen da, geure inguruko errealitatea hautemateko dugun sentimenik zorrotzena –ikusmena–, baliogabetu, ezereztu egiten zaigu eta. **baitzaigu**  
 \_\_\_\_\_ bai(t)-\_\_\_\_\_.
7. Ustekaberik handiena B eta A ereduaren arteko aldea izan da, alderantzizko emaitzak espero genituen eta. **baikenituen**  
 \_\_\_\_\_ bai(t)-\_\_\_\_\_.

## 5. Egin itzazu egin beharreko zuzenketak beheko esaldietan.

1. Eskolaren **aurrekaldean** dago aparkalekua.  
**aurrealdean / aurreko aldean**
2. **Bat batean** itzali da ordenagailua.  
**bat-batean**
3. Aspaldi egin nuen eskaera, baina oraindik ez **ditut** berririk izan.  
**dut**
4. **Nonnahi** eta **noiz nahi** egiten du pixa txakur horrek.  
**nonnahi/non-nahi eta noiznahi**
5. Zaborrontzia **hus** daiteke, baina ez egunero.  
**huts/hustu**
6. **Ordu bat t'erdietan** bazkaltzen du normalean.  
ordu bat eta erdietan

7. Iluntzeko **zortziretan** geratu dira afaltzeko.  
**zortzietan**
8. **Lauak** bost **gutxian** ateratzen da autobusa.  
**Laurak bost gutxitan/gutxiagotan**
9. Denbora asko galtzen da **administrazioan**.  
**administrazioan**
10. Ahalik eta azkarren **iritsi asmoz** hartu zuen hegazkina.  
**iristeko asmoz**
11. Hutsik zeuden **atzealdeko** eserleku guztiak.  
**atzealdeko / atzeko aldeko**
12. Mereziko luke gaia gertuagotik **aztertzeak**.  
**aztertzea**
13. **Nere eritziz** ez da egokia hori egitea.  
**nire/ene iritziz**
14. Ikasitakoak zerbaiterako balio digu **behinik-behin**.  
**behinik behin**
15. **Esna arazi** ezazu, ez **bait gara** iritsiko bestela.  
**esnaraz; baikara**

## 6. Ordinalen eta banatzaileen idazkera

1. Zein da zuzena?
  - a) Bost mila euro bana eman ziguten.
  - b) Bosna mila euro bana eman ziguten.
  - c) Bosna milana euro eman ziguten.
  - d) **Bosna mila euro eman ziguten.**
2. Zein da zuzena?
  - a) Zenbakarrena da Iraitz? Hogeita batgarrena.
  - b) Zenbatgarrena da Iraitz? Hogeitabat garrena.
  - c) Zenbagarrena da Iraitz? Hogeita bagarrena.
  - d) **Zenbatgarrena da Iraitz? Hogeita batgarrena.**
3. Larunbatean \_\_\_\_\_ hartu zituzten.
  - a) **bosna garagardo**
  - b) bosna garagardoak
  - c) bost garagardo bakoitzana
  - d) bostna garagardo
4. \_\_\_\_\_ ez zen halako gertaera ilunik izan; \_\_\_\_\_, ordea, bai.

- a) XVII. mendean / XVIII.ean
- b) 17 mendean / 18 mendean
- c) XVII mendean / XVIII mendean

5. Zein baztertuko zenuke?

- a) Hamabosgarren
- b) **Hamabostgarren**
- c) Hogeita batgarren
- d) Berrogeita batgarren

**7. Behar izan aditza duten ondoko esaldietatik lau okerrak dira. Zuzen itzazu: [113. araua]**

- 1. Bihar goizean nik lanera joan behar naiz. **dut (ni naiz)**
- 2. Jendaurrera irten behar zuela eta, oso urduri zegoen. ✓
- 3. Etxe horiek bota behar dute. **dituzte**
- 4. Zuk goizero garaiz joan behar zara lantokira. **duzu (zu zara)**
- 5. Etxean egon behar zenuela esan zizun. ✓
- 6. Lan hauek eman behar diot ikasleari. **dizkiot**

**8. Idatzi -arik, -rik edo -ik ondoko hutsuneetan: [15. araua]**

- 1. Zein ote da pizti\_\_ arriskutsuena? **piztiarik**
- 2. Ez diote ezarri zigor\_\_. **zigorrik**
- 3. Ez al du polts\_\_ ekarri? **poltsarik**
- 4. Ez dut ezagutu horrelako gauz\_\_. **gauzarik**
- 5. Ez al diozu esker\_\_ emango? **eskerrik**
- 6. Sabai\_\_ gabe geratu zen etxea. **sabairik**
- 7. Pila hauek ez dute energi\_\_. **energiarik**
- 8. Gaztetxea da, baina badu nahikoa ardur\_\_. **ardurarik**
- 9. Ez omen du horretarako ohitur\_\_. **ohiturarik**

**9. Egin itzazu egin beharreko zuzenketak beheko esaldietan.**

- 1. **Betirako** geratuko zait gogoan haren irribarrea.  
**betiko**
- 2. **Ba daki** bihar ez dela izango **eskolik**.  
**badaki; eskolarik**
- 3. Hainbat **arauez** aritu zaie aditua.  
**arauz**

4. Gizakiak badu **eskurik**.  
**baditu eskuak**
5. Hamar bulego dira eta **lauetan** dago berogailua.  
**lautan**
6. Lau bulego dira eta **lauetan** dago berogailua.  
**lauretan**
7. Hiru lagun dira eta **hiruek** ikasten dute Ingeniaritza.  
**hirurek**
8. Denok erretzen ari zarete... Badaukazue surik? Bai, badaukagu **surik**.  
**sua**
9. **Ikaslegoa** ez dago batere ados hezkuntza-sistemarekin.  
**ikasleak...ez daude/ikasleria**
10. **Gauan** suak ikusteko geratu gara.  
**gauean**
11. Uholdeen ondorioz, herri guztia **argirik gaberik** geratu zen.  
**argirik gabe / argi gabe / argi gaberik / argi barik**
12. Hamabost **kilotako** motxila eramaten du mendira joaten denean.  
**kiloko**
13. Hogei **kilometrotako** lasterketa egingo du datorren igandean.  
**kilometroko**
14. Gure aitak lau **urtetako** ardoa dauka sotoan, orain dela lau urte ekarri zuen Errioxatik.  
**urteko**
15. Gure aitak lau **urteko** (90, 91, 92, 94) ardoa dauka sotoan.  
**urtetako**

## 10. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Aukeratu forma zuzena:

1. *abantail* ala *abantaila*?
2. *harkaitz* ala *arkaitz*?
3. *bereiztu* ala *bereizi*?
4. *elkarzut* ala *elkar-zut*?
5. *grua* ala *garabi*?
6. *gerra* ala *guda*?
7. *isladatu* ala *islatu*?
8. *karretera* ala *errepide*?
9. *konposizio* ala *konposaketa*?
10. *parrafo* ala *paragrafo*?
11. *razional* ala *arrazional*?
12. *solido* ala *solidu*?
13. *sujeto* ala *subjektu*?

14. *txuri* ala *zuri*?
15. *zirkulo* ala *zirkulu*?

## 11. Itzuli honako esaldi hauek. [184. Erdal hitzen deklinabidea]

1. Vive en un barrio de Glasgow.  
Glasgowko auzo batean bizi da.
2. Prefiere utilizar el perfil de Yahoo.  
Nahiago du Yahooko profila erabili.
3. Me encantan los sándwiches de queso.  
Gazta-sandwichak gustatzen zaizkit.
4. Ha sido idea de Hillary.  
Hillaryren ideia izan da.
5. Siempre he sido gran fan de Klimt.  
Beti izan naiz Klimten fan handia.
6. ¿Has leído el último artículo de Grice?  
Irakurri al duzu Griceren azken artikulua?
7. La semana que viene empieza el festival de Cannes.  
Datorren astean Canneseko jaialdia hasiko da.
8. ¿Cuánto vale tu iPhone?  
Zenbat balio du zure iPhoneak?
9. Me voy a comprar el nuevo ordenador de Apple.  
Appleren azken ordenagailua erosiko dut.

## 12. Egin itzazu egin beharreko zuzenketak beheko esaldietan

1. **Ohizko** plastikoek eragiten dituzten ingurumen-arazo horiek konpondu nahian ari da aurrera egiten plastiko biodegradagarrien industria.  
**ohiko**
2. **Oroitu** gaitezen gure arbasoez.  
**oroit**
3. **Abenduak** 22an bukatzen dira lehenbiziko lauhileko eskolak.  
**Abenduaren 22an**
4. **Abenduaren 8** jaieguna izaten da Hego Euskal Herrian.  
**abenduaren 8a**
5. Irrati horretako **entzulegoak** botoen bidez erabakitzen du zein musika entzun nahi duen.  
**entzuleek/entzuleriak**

6. Hamar herrialde dira, eta hamar **herrialdetako** ikasleak bildu dira.  
**herrialdeetako**
7. Idazkaria **zuzendaria** bihurtu zen bost urte pasatu ondoren.  
**zuzendari**
8. Ikasle **batzuk** aurten bukatuko dute gradua.  
**batzuek**
9. Ezin **ezagutu** dezakegu munduan une oro gertatzen den guztia.  
**ezagut**
10. Lau **urtero** egiten da Euskal Herriko bertsolari txapelketa.  
**urtez/urtetik/urtetatik/urterik behin; lau urtean behin; lau urtetik lau urtera**
11. Goizago joan zen lantokira, bukatu gabe utzitako lanak **bukatu asmoz**.  
**bukatzeko asmoz**
12. **Galdetu** iezaiozu Juneri **etorri** daitekeen laguntzera.  
**galde; etor**
13. Sindikatuak kezkatuta daude **irakaslegoaren** egoeraz.  
**irakasleen/irakasleriaren**
14. **Nafartarrak** ahalegin handia egiten ari dira euskararen alde.  
**nafarrak**
15. **Googlentzat** ari da lanean.  
**Googlerentzat** (= Maiterentzat)
16. Galtzen diren neuronak **betirako** galtzen dira.  
**betiko**
17. Glasgowera joango da laguna bisitatzera.  
**Glasgowra**
18. Euskaltzaindiako zuzendaritza berri dute.  
**Euskaltzaindiko**